



BIRIKLETA

BALIOEN PROPOSAMENA

BIRIKLETA biriketako minbizia pairatzen dutenentzat baliabideak eta begirunea lortzeko lan egiten duen elkarte da. Gure elkartearen izenaren jatorria berezia da; *Biri* (birikak) eta *kleta* (gure ekintza nagusia bizikletarekin lotua dagoelako) hitzen baturatik dator. Minbizi mota hau ezagutzen den larrienetariko bat da, izan ere, diagnostikaturikoen %90ak ezin dio gaixotasunari aurre egin. Euskal Herri mailan ez dago biriketako gaixotasunaz arduratzen den elkarterik. Horregatik guztiagatik, erabaki dugu indarrak bildu eta minbizi mota honi merezi duen ahotsa, babesa eta garrantzia ematea.

Gure helburu nagusia gaixotasunaren ikerketa bultzatzeko dirua biltzea eta gizarteko kideen artean kontzientziazioa sustatzea da. Helburu hau aurrera eramateko hainbat ekintza proposatzen ditugu.

Lehenik eta behin, BIRIKLETA EGUNA inizatiba jarriko dugu martxan. Ekainean txirringularitza lasterketa solidarioa egitea dugu asmo gisa. Ekainean egitea pentsatu dugu, biriketako minbiziaren kolorea zuria denez eta kolore honek argitasuna transmititzen duenez udako hilabetea aukeratu beharra genuen eta zein hobeto ekaina baino, uda hasiberritan. Hilabete honetako azkenengo larunbatean, txirringularitza lasterketa solidarioa egitea izango da gure egitasmoa. Etxeko txiki nahiz handientzat egongo da zuzendua. Guztiok batera larunbat ederra biziko dugu, kirola eginez eta gizarteari eta behar dutenei lagunduz.

Gipuzkoan zehar, txirringularitza lasterketa bat egiteko asmoa dugu, herriz herri txirringulariak gehitu nahiz kanporatzen joango dira, horrela, bakoitzak bere doaien arabera nahi duen zatia egiteko aukera izango du. Lasterketa Donostian hasi eta Tolosan amaituko da kosta zeharkatuz.



BIRIKLETA

Bestalde, lasterketan erabili eta gero txirrindularitzan aritzen direnek ere jantzita eraman ditzazketen kamisetak saltzea erabaki dugu, Euskal Herriko lasterketetan gure elkarteari ikusgarritasuna emanaz. Dudarik gabe, gure kamisetak zuriak izango dira, biriketako minbiziaren kolorea islatuz. Hori gutxi balitz, egunerokotasunean errepide guztietan bueltaka dabiltzan txirrindulariek gure elastikoak jantzita eramanez gero, gure elkartea ezagutaraztea lortuko dugu Euskal Herriko bazter guztietan zehar.

Azkenik, Bizum eta Paypal kontuak izango ditugu jendeak nahi duen diru kantitatea doaitzat eman dezan, beraien etxetik mugitu gabe. Ekintza guzti hauen bidez irabazitako diru guztia biriketako minbiziaren ikerketa finantziatzeko erabiliko da.